

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Lanpostu zerrenda aldatzea

Lezako Udalbatzak, 2016ko abuztuaren 30eko aparteko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea lanpostu zerrenda aldatzeari eta hizkuntza eskakizun hauek ezartzea lanpostu hauei:

Langile funtzionarioak

Lanpostuaren izena: Idazkari kontuhartzailea

Administrazio egoera: hutsik.

Eskala: gaikuntza nazionalekoa.

Taldea: A1/A2

Maila: 22

Titulazioa: Zuzenbideko, politika eta administrazio zientzietako, soziologiako, enpresen administrazio eta zuzendaritzako, ekonomiako, edo aktuariotza eta finantza zientzietako lizentziaduna.

Destinoa: Leza-Navaridas taldea

Hizkuntza eskakizuna: 4

Derrigortasun data: datarik gabe.

Lan kontratupeko langile finkoak

Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea

Administrazio egoera: aktiboan.

Lanbide kategoria: laguntzaileak.

Taldea: C2

Maila: 10

Titulazioa: eskola gradua, 1. mailako lanbide heziketa edo baliokidea

Destinoa: Idazkaritza kontuhartzailletza

Hizkuntza eskakizuna: 2

Derrigortasun data: 2016ko maiatzaren 1a

Lanpostuaren izena: zerbitzu askotako behargina

Administrazio egoera: aktiboan.

Lanbide kategoria: menpekoak.

AP taldea

Maila: 7

Titulazioa: eskola ziurtagiria

Destinoa: mantentze lanak

Hizkuntza eskakizuna: 1

Derrigortasun data: datarik gabe.

Espedientea jendaurrean jartzen da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko Udalbatzari.

Lanpostu zerrendaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada; bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du ebazteko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2016ko urriaren 21a

Alkate lehendakaria

INMACULADA LAREDO FUERTES